



ERAKUNDE ADIERAZPENA

Foru Gobernu Kontseiluak, 2018ko martxoaren 8aren ospakizuna dela-eta, erakunde-adierazpen hau onesten du:

Erakunde adierazpena, martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna

Arabako Foru Aldundiak, aurtengoan ere, adierazten du bat datorrela emakumeen eskubideak bizitzaren eremu guztietan egiaz erabiltzearen aldeko erreibindikazioarekin.

Aurten, Arabako Foru Aldundiak “Emakume gehiagorekin, gure Kontzejuak irabazle” goiburuekin ospatuko du Emakumeen Nazioarteko Eguna. Helburu bikoitza da: batetik, nabarmentzea emakumeek Kontzejuetan parte hartzeak duen garrantzia, Arabako herrietako bizimodua hobetzeko erabaki esparru baitira, eta, bestetik, aitortza egitea Arabako Kontzejuetan parte hartzen aitzindari edo erreferente izan ziren edo diren emakumeei eta egungo partaideei eta Administrazio Batzarretako karguetan ari direnei.

Bi alderdi horiek, parte-hartzea eta aitortza, berariaz jasota daude Arabako Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako IV. Planaren (2016-2020) printzipio gidarrietan benetako gizarte demokratiko baten eskakizun gisa; izan ere, berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintza da emakumeek eragiten dieten erabakiak sortzen eta hartzen diren guneetan parte hartzea. Halaber eskatzen da aitortza egitea parte-hartzeko eta erabakimen politikoko esparruetan bideak ireki dituzten emakumeei, mendeetan haietatik kanpo utzi baitituzte, sistema patriarkalaren beste adierazpen batzuen artean.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El Consejo de Gobierno Foral, con motivo de la celebración del día 8 de marzo de 2018, aprueba la siguiente Declaración Institucional:

Declaración institucional, 8 de Marzo, Día Internacional de las Mujeres.

La Diputación Foral de Álava manifiesta un año más su decisión de sumarse a la reivindicación del ejercicio real de los derechos de las mujeres en todos los ámbitos de la vida.

Este año, la Diputación Foral de Álava conmemora el Día Internacional de las Mujeres bajo el lema “CON MÁS MUJERES nuestros Concejos ganan”. El objetivo es doble: por un lado, poner de relieve la importancia de la participación de las mujeres en los Concejos, como ámbitos de decisión para la mejora de la vida de los pueblos de Álava; y por otro, reconocer a las mujeres que fueron o son pioneras o referentes en la participación en los Concejos alaveses y a las que actualmente los integran y ocupan cargos en las Juntas Administrativas.

Ambos aspectos, la participación y el reconocimiento, están recogidos explícitamente entre los principios rectores del *IV Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Álava (2016-2020)*, como una exigencia que emana de una sociedad auténticamente democrática, en que la participación de las mujeres en los espacios donde se gestan y toman las decisiones que les afectan es una condición necesaria para la consecución de la igualdad. También exige del reconocimiento de aquellas mujeres que han abierto caminos en los ámbitos de participación y decisión política, de los que han sido excluidas durante siglos como una más de las manifestaciones del sistema patriarcal.



Arabako Kontzejuetan emakumeek duten presentzia oraindik oso urrun dago gizonetik ordezkapen orekatua lortzetik. Joan den 2017ko azaroan izan ziren Kontzejuetarako azken hauteskundeak. Nahiz eta orain arte egin diren hauteskundeetatik horietan egon emakume hautetsi gehien, emakumeek karguen %24,6 baino ez zituzten bete eta Kontzejuetatik %45,5ek ez zuten emakume hautetsi bat bera ere izan. Datu horiek agerian jartzen dute emakumeek herrietako bizimoduan duten eginkizun ukaezinak eta haien eraginak ez dutela dagokien lekua erabakiak hartzeko esparruetan, kasu honetan, Kontzejuetako batzarretan eta Administrazio Batzarretan.

Horretarako, ez da bakarrik beharrezko gizartea sensibilizatzea eta kontzientziaztea esparru horiek betetzeak duen garrantziaz eta bereziki emakumeak animatzea parte-hartze politikoa izatera, ezpada parte-hartze hori eragozten duten trabak eta Kontzejuen jardunbide eremuan dauden genero desberdintasunak kentzea.

Horrela, Arabako Foru Aldundiak bat egiten du emakumeek erabaki politikoak hartzeko esparruetan presentzia parekidea izateko errebindikazioarekin, esparru horiek, Arabako kontzejuek bezala, eragin zuzena baitute lurraldeko biztanlegune txikienetan herritarren bizimoduaren hobekuntzan.

Ezinbestekoa da emakumeek dagokien lekua hartzea bizitza publikoaren arlo guztietan, eta, batez ere, parte hartzeko eta erabaki politikoak hartzeko esparruetan, gizartea bidezkoa, berdintasunezkoa eta demokratikoa izan dadin. Horregatik, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Arabako Foru Aldundiak, hain geurea den Arabako Kontzejuen errealtate honetan indarra jarritz, bat egiten du mundu guztiko milioika emakumeren ahotsarekin eta pertsona guztien berdintasun erreala lortzeko konpromisoa,

La presencia de las mujeres en los Concejos alaveses está aún muy lejos de alcanzar una representación equilibrada con respecto a la de los hombres. En las últimas elecciones a Concejos, que tuvieron lugar en noviembre de 2017, aun habiendo sido los comicios con mayor porcentaje de mujeres electas de los celebrados hasta el momento, las mujeres ocuparon solo el 24,6% de los cargos y un 45,5% de los Concejos no tuvieron ninguna mujer electa. Estos datos ponen de manifiesto que el papel incuestionable y la influencia de las mujeres en la vida de nuestros pueblos no ocupa el lugar que le corresponde en los ámbitos de toma de decisiones, como son en este caso las asambleas de los Concejos y las Juntas Administrativas.

Para ello, es necesario no solo sensibilizar y concienciar a la sociedad en general de la importancia de ocupar esos espacios y animar a las mujeres en particular a la participación política, sino especialmente eliminar los obstáculos que dificultan esa participación y las desigualdades de género que existen en el modo de funcionamiento de los Concejos.

De esta manera, la Diputación Foral de Álava, se une a la reivindicación por una presencia paritaria de las mujeres en ámbitos de decisión política, que, como los concejos alaveses, inciden directamente en la mejora de la vida de la población de los núcleos más pequeños del territorio.

El que las mujeres ocupen el lugar que les corresponde en todas las esferas de la vida pública, y en especial, en los espacios de participación y decisión política, es una exigencia de una sociedad para que sea justa, igualitaria y democrática. Por eso, en este Día Internacional de las Mujeres, la Diputación Foral de Álava, poniendo el énfasis en una realidad tan propia como son los Concejos alaveses, se une a la voz de millones de mujeres en todo el mundo y a miles de instituciones que, en este día



bereziki egun horretan, erakusten duten milaka erakunderekin.

Martxoaren 8a ospatzen dela-eta, Arabako Foru Aldundiak animatu nahi ditu beste erakundeak, emakumeen elkarteak, emakume bakoitza eta oro har herritarrak, parte har dezaten gure lurralde historikoan egingo diren erreibindikazio ekitaldietan, eta bereziki Arabako Foru Aldundiak martxoaren 9an, larunbatean, goizeko 11:00etan Gasteizko Artium Zentro-Museoan antolatutako ekitaldi ofizialean.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiak berretsi egiten du emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko hartu duen konpromisoa, zeina Agenda 2030ean garapen jasangarrirako helburuetako bat baita. Aipatutako helburuek aldundiaren konpromiso sendoa dute eta politika publikoak bideratzen dituzte gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 5a

particularmente, muestran su compromiso con el logro de la igualdad real de todas las personas.

Con motivo de la celebración del 8 de Marzo, la Diputación Foral de Álava anima a otras instituciones, a asociaciones de mujeres, a las mujeres a título individual y a la ciudadanía en general, a organizar y a sumarse a los diferentes actos reivindicativos que tendrán lugar en nuestro Territorio Histórico, y en particular a participar en el acto oficial organizado por la Diputación Foral de Álava el sábado 9 de marzo, a las 11 de la mañana, en el Centro-Museo Artium de Vitoria-Gasteiz.

Por último, la Diputación Foral de Álava, se reafirma en su compromiso por la igualdad de mujeres y hombres, que es además uno de los objetivos de desarrollo sostenible de la Agenda 2030, con los que la Diputación está firmemente comprometida y que están orientando las políticas públicas hacia el logro de una sociedad más justa e igualitaria.

Vitoria-Gasteiz, 5 de marzo de 2019